

zaio, bai eta narratzaile bikain eta neurtu baten teknika doia ere (Harold Bloom zenak bi ezaugarriok miresten zizkion Morrisoni, estilismoa eta narrazioa). Istoriak (ezen ez tramak) aurrera bainoago barrura egiten du, geruzaz geruza eta pertsonaiaz pertsonaia iragan lazgarri batean sakonduz, esklabo-garaietako izugarrikeria bortitz eta oso grafikoen arteak, istorioaren (ezen ez tramaren) gunea iritsi arte, epizentrokogertakaria: ama batek alaba hiltzen duenekora.

Memoria ez nostalgiko baizik sufriarazle baten ardatzak orobat biltzen ditu bai kontatera, bai istorioa bera

Eleberriak mitologiaren sakonera ere jotzen du; hortik, esklabotzaren azterketa ezinago politiko bat egiten du

Infantizidaren mitoak oihartzun luzea du literaturan eta mitotetan, hala Mendebaldeko tradizioan nola Mendebaldetik kanpo ere. Esate baterako, greziar mitologia ko figura nabarmenetako bat da Medea, zeinak, labur-zurrean, Jasonen eta bien umeak akabatu baitzituen, senarraren bengantza hutsez antza, hark beste emakume batengana bildu eta Medea abandonatu zuelako. Mitologian sarri agertzen da senarraren jelsia hutsez seme-alabak hiltzen dituen emakumea, eta *Maitea* ere tradizio horrekin harremanetan dago, kontraposizio besterik ez bada: izan ere, *Maitea* ko infantizidak haurra esklabotzatik salbatzeko akabatzen du, Euskal Herrian ezaguna den beste mito baten antz nabarmenean. Baliteke, baina, *Maitea* eta Medea hain bestelakoak ez izatea: Raul Garrigasait filologo klasiko katalanek adierazia du Medeaaren ekintza bengantza soila baino gehiagotzat jo litekeela, jakin behar baita, Garrigasaitek dioenez, Medea *outsider* bat dela, bakarrak eta bakarturik dagoena bere sorigin-ezagutza eta kanpotar-izaera direla eta; halatan, umeekiko loturak etetea bere burua askatzea ere bada, *Maitea* ko infantizidak ere alaba askatzen duen hein makabro berean.

Beraz, *Maitea* eleberriak mitologiaren sakonera ere jotzen du, eta, hondo horretatik, esklabotzaren azterketa ezinago politiko bat egiten, errealismo magikoaren doinuaren errezitatuz (eta itxuratuz) memoria lazgarri eta torturatu baten etengabeko itzulera.


Dendaostea erakusleihora

Irati Majuelo

Garai baten historia apaletan gordeta dakarren denda baten kronika literarioa. Hori da Uxue Alberdiren *Dendaostekoak* liburuan aurki daitekeena. Bi ahizpak 1970eko hamarkada amaieran gazte-gazterik irekitako denda behaleku gisa harturik, errepaso politiko-soziala egiten dio ordutik gaur egunera arte Elgoibarrek eta bertako merkataritzak izan duten bilakaerari. Eta horrekin batera, herri-dinamikek, harreman moldeek, ohiturek; ezinbestean elkarri lotuta egon baitira.

Kronika honen indargune nabarmenetako bat enpresa txiki eta familia girokoei egiten dien erradiografia zorrotza da: zer esan nahi zuen denda jaioa izateak, zer ikusten den salmahaitik, nolakoa den dendariaren bizitza. Asko hitz egin da Euskal Herrian industriak izan duen ga-

rrantziak, baina ez hainbeste merkataritza txikiak eta horrek gizarte-konfigurazioan izandako eraginaz. Hala, herri industrial batetik, Debabarrenaren muinetik ari zaigu Alberdi dendek XX. mendean izan duten funtzioari buruz, sozializazio eremu gisa



'Dendaostekoak'

Idazlea: Uxue Alberdi.
Argitaletxea: Susa.

izan duten garrantziak, topaleku eta elkar zaintzarako konfiantzazko gune izan diren heinean. Desagertzen ari den espezie baten argazkia.

Liburuaren beste gako garrantzitsua da «feminitatearen eremu» kontsideratutakoak (jostakintza, dendari lana, emakumeen arteko ahizpatasuna, amatasuna, etab.) dendaoestetik, alor pribatutik, publikora ekarri izana. Balioa eta garrantzia aitortzeaz gain ikusezin izan diren lan eta praktikei, Alberdik eremu hori birdefinitu eta berezko duen izaera politikoa ikusarazi du. Topiko eta usteetatik aldenduta, XX. mende amaieran bi emakumeren bizitzen konplexutasuna eta kontraesanak jartzen ditu begi bistan, mertzeria batek egin dezakeen lan soziala eta liburdenda bat izan daitekeen gune iraultzailea. Denda baten bueltan sorturiko harreman, bizipen eta irakaspeneke beste dimentsio bat hartzen dute kronika honetan.

Ahozkotik oso gertuko hizkera darabil, bizitasuna eta bat-batekotasuna nabarmentzen dira estiloan. Ezin zen bestela izan, dendariet eman baitie gordin-gordinen hitza, euren ahotsetik egiten du solas liburuak. Idazlea hor dago, baina parte hartzea

bainoago nabari da presentzia, eskuaren partez belarria. Bestelako leku batetik idazten du oraingo honetan Alberdik: entzule arretatsuaeren bigarren lerroa hartu du. Kronikagileak entzule ona behar baitu izan beste ezeren gainetik.

Denda baten kronika dela esan dugu, ez litzateke gutxiagorako ere, protagonista dituen bi emakumeen bizitzetan kaketutako memoriaren mataza dela esatea. Izan ere, Elgoibarko *Pitxintxu* dendak denetarik hartu du atzeko aldamenean: Marx eta mertzeria, parranda eta presoak, feminismoa eta sexua, artea eta ekonomia. Baina batez ere, lana. Lana, lana eta lana. Mostradore zein errezelen beste aldera dagoen horrek pentsatu eta egin behar izaten dituen guztiak ematen ditu ezagutzera kronika eder honek. Aitortza bat langile konprometituei.

Eta hala ere bizi! Mendi-igoerek, emakume taldeak, poteoak edo amatasunak ez baitute etenik denda martxan egon arren. Bizi grina dario orrialde bakoitzari, heriotza, jaiotza, uholde eta tiroketen gainetik, eta hori bizitza disfrutatu duten emakume pareari zor zaio. Hala izan bedi aurrerantz!

Abaila handian

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Haur literaturaren klasiko bat dira abenturazko istorioen bildumak. Haur talde bat izaten da protagonista, eta behar ez den lekuetan ibiltzeagatik tugarri baita, Garrigasaitek dioenez, Medea *outsider* bat dela, bakarrak eta bakarturik dagoena bere sorigin-ezagutza eta kanpotar-izaera direla eta; halatan, umeekiko loturak etetea bere burua askatzea ere bada, *Maitea* ko infantizidak ere alaba askatzen duen hein makabro berean.

Askotan munstroak eta halako izugarrikeriak izaten dituzte arierio, nahiz eta azkenean errealtatearen pertzepzio nahasia izaten den, eta hezur-haragizko jendea izan gaiztakeriatan ari dena. Delako munstroen atzean beti dago gaizkileren bat, lapurretan, bahiketean, edota gaiztaginek egin ohi dituzten halako azioetan. Gure heroiek, jakina, aurre egingo diote, eta makurkeria lanak zapuztuko dizkiote, nola edo hala.

Valerium Tremens bildumako bi liburuak (batera kaleratu dira) testuinguru honetan kokatzen

dira. Bata zein bestea abaila handiko kontakizunak dira, sasi-munstroekin garatutakoak, gaztetxoak protagonista direla.

Irakurketa arina proposatzen dute, agian ariniegia, eta sentipena izan dut ez dela nahikoa indar jarri ez protagonisten harremanetan, ez eta ekintza kateak suposatzen duen emozio gorabeheren kudeaketan.

Aitortzekoa da, bestalde, pertsonaia eta inguruneak euskal testuinguruan jartzeko ahalegina.



'Valerium Tremens eta traganarruak'

Idazleak: Martin eta Xabier Etxeberria.
Ilustratzailea: Iñaki Holgado.
Argitaletxea: Elkar.

Laukoiztasun

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburu bat irakurtzen dugunean, bi gauzari errepikatzen diegu nahigabe ere: zer kontatu digun, eta nola kontatu digun. Album ilustratu kasuan, hau nahikoa ez, eta bikoiztu egiten dugu ariketa, irudigintzaren ekarpena eranstean zaiolako testuari, irudiekin zer kontatu digun eta nola kontatu digun antzematen baitugu, testuarenarekin batera.

Hortxe dago albumen artea, lauhoiztasun horri batasuna eman eta guztien artean istorio bat osatzean.

Zuhaitz bat albumari dagokionez, zenbaketa ariketa batean garatzen da kontakizuna. Badugu arbola bat protagonistak aldatu duena, zeinari bi txori batuko zaizkion, zeintzuek hiru arrautza txitatuko dituzten...

Ematen du zenbaketa jolas horretan garatuko dela istorioa, harririk eta narratzaileak gidoiari kontra egin, zenbaketa aldrebesten ari zaiola kexatu (arbolari sagarrak jaio, untxi bikoteek kumeak egin, inurriek sagar bat jan...), eta «hemendik aurrera zeuk kontatu beharko duzu» esanez, irakurleari jarraitzeko agintzen dion arte.

Hortik aurrerakoak irudi hutsez garatzen dira, haurren pazientzia narratzailearena baino handiago bada, noski.



'Zuhaitz bat'

Idazlea: Rodrigo Mattioli. **Ilustratzailea:** Rodrigo Mattioli. **Itzultzailea:** Jone Hualde. **Argitaletxea:** Denonartean.